

### Mediterraniorako laborategia

**E**uropako Batasunean Mediterranioko arrantzak bere garritza da. Guztizko arrantza % 15 da (700.000 tona) pisuari dagokionez, eta % 35 balioari dagokionez. Hala ere, Mediterranioko arrantza epe laburrerara arriskutan da. Kostetan izan ere, urbanizazioa, turismoa, hondakinak, etab. gero

Mediterranioan arrantzak segi dezan, gaur egun derrigorrezkoa da ingurugiroa ikertzea eta bertako oreka errespetatzea. Horretarako irudian ikusten den "Europe" izeneko katamarana egin dute.

eta ugariago dira. Gainera, arrantza erregulatzeko saioak egin diren arren, gehiegi harapatzen da eta epe luzera espezieak galtzeko arriskua dago.


Mediterranioan arrantzak segi dezan, gaur egun derrigorrezkoa da ingurugiroa ikertzea eta bertako oreka errespetatzea. Itsasoko baliabideak eta ustiaketa ongi ezagutu behar dira. Horretarako "Europe" izeneko katamarana egin dute. Aluminiozko itsasuntzi honek ia 30 metro luzera du eta benetako laborategia dela esan daiteke. Ohizko eta neurri bereko itsasuntziak baino % 50 azalera handiagoa du laborategietarako. Ozeanografiarako tresneria prestatzeko eta erabiltzeko ere, ohizko itsasuntziak baino erosoagoa da.

### Ingurugiroa babesteko aurrekontuak

**I**991. urtean munduan aurrekontuetan ingurugiroa babesteko diru gehien erabilikotako estatuak Alemaniako Errepublika Federala izan zen. 309,1 milioi dolar erabili zituen zeregin horretan. Estatu Batuetan zifra hori 361,2 milioi dolarrekoa izan zen, Italian 169,7 milioiokoa, Britainia Handian 125 milioiokoa eta Frantzia 81,7 milioiokoa besterik ez. OCDE erakundeak emandako datu hauek argi erakusten dute ingurugiroa babesteko benetako ardura zeintzuek duten.

### Atmosferako CFC-kontzentrazioak behera egin du

**C**FC letrez izendatzen diren klorofluorokarbonoen kontzentrazioa azkenaldian nabarmen jaitsi da, Estatu Batuetan National Oceanic and Atmospheric Administration erakundeak egindako neurketa batzuek diotenez. On-



CFC klorofluorokarbonoen kontzentrazioak izandako bilakaera. Garbi ikusten da nabarmen jaitsi direla.

### Sichuan probintzian mendetako aurrerapena

**T**zian Sichuan probintzian bost milioi bizi dira eta mendeak daramatzate simaur, lasto eta materia organikoaren hartiduratik sortutako metanoa aroberatzatzen. Gauean argia eta sukaldeko sua metanoa erreta lortzen dituzte. Gainera nekazariak beren haziak metano-zulotara sartuta ongarritzen dituzte, nitrogenoa, fosforoa; potasioa, kobrea, etab. hartzen dituztelako.

doko diagrametan erakusten dira neurtutako balioak. Lerro jarraiek zientzilariek egindako aurkikuspunen adierazten dituzte, eta lerro hautsiek egin diren neurketen balioak. Adituak harriritu geratu dira, hain jaitsiera handia espero ez zutelako. Horrek ozono-geruza berehala osatzen dela esan nahi du, zeren oraindik han goian urteetan kaltetzeko adina CFC baitago. Hurrengo mendearen hasieran egiaztatua ahal izango da poloen gainean detekta-





tutako geruza mehetzea CFC izeneko elementuen eragina dela dioen hipotesia. Baliteke ozono-zuloak (berez zulorik ez dago; geruza meheagoa baizik) Lurreko iharduera industrialarekin zerikusirik ez duten beste arrazoi batzuegatik sortu izatea.

Ozonoa etengabe berriztatzen da tenperatura batzuetan izpi ultramoreen eraginez, baina tenperatura txikiegia denean (poloen parean, adibidez), ozonoa berriztatzeke prozesua moteldu edo geratu egiten da.

## Lera-trakurrak debekaturik

Lera edo trineoak garraiatzeko erabiltzen diren zakurrak Antarktikaren debekaturik daude apirilaz gero. Antarktikako ingurugiroa babesteko nazioarteko akordio baten arabera, bertako fauna ez dena sartzea debekaturik dago.

Lera edo trineoak garraiatzeko erabiltzen diren zakurrak Antarktikaren debekaturik daude apirilaz gero.



## Lindanoa salbuesia

Greenpeace erakunde ekologistak Espainian lindanoa usatzea eta soro eta zelaietan barreiatzea debeka dadin eskatu berri du. Erakunde honek lindanoa Madrilgo Osasun-ministeritzak debekaturiko plagizida-zerrenda berrian ez agertzea salatu du. Hexakloroziklohexanoaren esteroisomero guztiak debekatzen ditu zerrenda horrek, lindanoa izan ezik. Lindanoaren produktioan hondakin toxikoak sortzen dira eta gainera produktua bera oso kaltegarria da nerbio-sistemarentzat. Bestetik, Euskal Komunitate Autonomoan lindanoak poluitutako lurrak garbitzeko Eusko Jaurlaritzak plan garestia egiten dihardu.

## Azken bikotea

Japoniako Sado irlando bi ibis motostun hauek dira munduan bizirik diren bakarrak; espezie honetako azkenak, alegia. Ez dute ondorengorik izan eta beren adina kontutan hartuta ez dutela izango ere esan daiteke. Bi hegazti hauek hiltzen direnean, espeziea betiko galduko da, baina izoztu egingo dituzte, besterik ez bada ere ondare genetikoak gorde



Japoniako Sado irlando bi ibis motostun hauek dira munduan bizirik diren bakarrak; espezie honetako azkenak, alegia.

ahal izateko. Dena den, teknikaren aurrerapenak medio ez al da hemendik urte batzuetara ibis motostuna edo Asiako ibisaren hibridoen bat sortzerik izango? Japoniako igaraba ere azkenetan da eta espezie honen ondare genetikoak gordetzekotan dira. Japoniako otsoa ere ezkutatu zen, baina nonbaiten bere ADN-molekulak topatuta ez al dute berreskuraturiko?

## Estatu-irla txikien arazoak

Gehienentzat munduko irla txikiak amets eta opporretako irudiak dira. Alabaina, irla horietako biztanleentzat bizitzia biziraupen-borroka da; munduak neurri batean baztertuak dituzenez, latzago bihurtzen dena. **Azken urteotan, gero eta gehiago irla horietako biztanleen bizimodua arrisku bizian jarri da;** horiek izango baitira klima-aldaketaren eta ozeanoetako ur-mailaren igoeraren ondorioak

gehien pairatuko dituztenak. Esaterako, Indiar Ozeanoko Maldiva irlak urperatuta gelditi daitezke hurrengo mendearen erdialderako. Gainera estatu-irla txikien baliabide naturalak, ekonomia eta ekosistemak arriskutan daude industriari ustiapena, gaizki planteatutako garapena eta munduko merkatuekiko duten menpekotasuna direla kausa.

Irla horietako arazoak aztertzeko Garapen bidean dauden Estatu Irla Txikien Garapen Jasangarrirako Mundu Konferentzia bilduko da Barbadosen apirilaren 25etik maiatzaren 6a bitartean. Konferentzia hau Rio de Janeiroko goi-mailako bilaren ondorio da eta bertan NBEko 150 estatu inguruk eta hagitx gobernu kanpoko erakunde hartuko du parte. Konferentzia paratzeko bi aurrebileria egin dira. 1993ko maiatzean Ozeano Bareko eta Indiar Ozeanoko estatuak juntatu ziren Vanuatu eta urte bereko uztailean, Mediterraneo, Karibe eta Atlantiarrekoak Port of Spain-en (Trinidad eta Tobago).